



2015ko martxoa 2. zka.



EUSKADIK ETA CATALUNYAK  
DUELA MENDE BATEKO  
PARTIDA GAUR



# PRIMERAN!





Practica el  
*Vacacioning*  
de NAUTALIA



*Practica desconecting,  
playing o disfruting...*

RESERVA  
desde solo  
**50** €\*  
por persona

MEJOR  
PRECIO  
garantizado

FINANCIACIÓN\*\*  
en **10**  
MESES

HASTA  
**14**%  
un  
DE DESCUENTO

Consultar condiciones de aplicación de estas promociones en nuestras Oficinas. \* Depósito no reembolsable.

\*\*Financiación: consulta condiciones de financiación ofrecida, sujeta a estudio y aprobación por parte de Santander Consumer Finance. S.A.



200 oficinas  
902 811 811  
nautaliaviajes.com

C.I.C.M.A. 2468Mm



**NAUTALIA**  
Conecta con tu mundo

ARABA-ÁLAVA | Vitoria-Gasteiz | Av. Gasteiz, 34. Tel.: 945 10 47 74 | Zaramaga, 1. C. Cial. Boulevard. Tel.: 945 10 30 97 |  
BIZKAIA | Bilbao | Gran Vía D. Diego López de Haro, 82 (Metro: San Mamés/Indautxu). Tel.: 946 42 43 48 | Pza. San Francisco Javier, 1 (Metro: Indautxu). Tel.: 946 40 40 28 |  
Basauri | Pedro Bilbao, 2 (esq. Nagusia, 1). Tel.: 946 41 45 08 | Deusto | Luis Power, 28. Tel.: 946 43 80 03 | Galdakao | Juan Bautista Uriarte, 31 bajo. Tel.: 946 41 64 05 |  
Las Arenas-Getxo | Mayor, 4. Tel.: 946 42 46 82 | GIPUZKOA | Donostia-San Sebastián | Urbietta, 47. Tel.: 943 10 49 24 | Eibar | San Agustín, 5. Tel.: 943 10 89 60 |  
Irún | Plaza J.R. Agirretxe, 3 (fuente Luis Mariano). Tel.: 943 10 43 42 | Rentería | Av. Navarra, 63. Tel.: 943 10 43 44 | Urretxu | Labeaga, 41. Tel.: 943 10 98 78 |



3	EDITORIALA
4	ATHLETIC CLUB
5	REAL SOCIEDAD
6	EIBAR
7-8	BIGARRENA ETA HIRUGARRENA
9-13	EUSKAL SELEKZIOA-CATALUNYA
15	VILLARREN BISITA BILBORA
18	EMAKUMEZKOEN FUTBOLA
19	GAZTEAK ETA KADETEAK
20	ARETO FUTBOLA
22	ELKARRIZKETA I. SENARI
23	FEDERAZIOEN BATASUNA

©:

EUSKADIKO FUTBOL  
FEDERAKUNDEA  
FEDERACIÓN VASCA DE FÚTBOL

Erredakzio Batzordea  
Comité de Redacción  
Luis María Elustondo,  
Nerea Zalabarría, Kepa Allica,  
Haritz Gallastegi y Fran Rodríguez

Koordinaketa. Coordinación  
Cantera Deportiva S.L.  
Disenu eta Maketazioa  
Diseño y Maquetación  
Cantera Deportiva S.L.  
Argazkiak. Fotografías  
Federación Vasca de Fútbol  
y Cantera Deportiva

HAMAIIKA  
Euskadiko Futbol Federakundea  
Julian Gaiarre 48 bajo  
48004 BILBAO  
Tfnoa: 94 473 19 00  
webmaster@eff-fvf.org  
Depósito legal: BI-581-2014

Colaborador  
Laguntzailea



Hamaika ez da bere laguntzaileen  
iritziaz erantzule egiten  
Hamaika no se hace responsable  
de la opinión de sus colaboradores/as

## EDITORIAL

### FUTBOLAREN ERRONKAK

**F**utbolaren erabakigune nagusietan dauden desadostasunak gogoratuz zuzendu gura dut zuengana. Botere gosea ezin da kudeaketa ideia berriak abian jartzearen aurretik egon.

Bigarrenez, ezin esan gabe utzi futboleaz azaleratu diren iruzur kontuak. Denon artean konpondu beharreko auzia da.

Hirugarrenez, futbol zale batzuen jarrera onartezinei aurre egiteko bide egokiena hezkuntza dela nabarmendu gura dut.

Laugarrenez, nire elkartasun eta miresmena adierazi gura diet klub apal guztiei. Federazioaren eta agintarien ardurak da euren egoera ezagutu eta dituzten premia guztiak betetzen laguntzea.

Eta, bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet hiru Eukal Selektzioek joan den abenduan jokatu zituzten partidak aurrera ateratzen lagundu zuten guztiei.

ESKERRIK ASKO DENOI.

### EL FÚTBOL HA DE PASAR LA ITV

**E**S importante mencionar las profundas discrepancias en la cúpula de los máximos centros de decisión, donde parece que para algunos, prima más el sillón y el poder que aportar nuevas ideas de gestión y eficacia de acuerdo a los tiempos actuales. Al parecer el fútbol tampoco es ajeno a los casos de corrupción y amaños; puntuales, pero graves. La intolerancia, el insulto, la violencia... se pretenden resolver con multas, castigos y cierre de estadios; puede que sean medidas necesarias, aplicadas con sensatez e inteligencia, pero sin duda la mejor terapia es la educación desde la más temprana edad seleccionando entrenadores, monitores y educadores junto con los padres en un objetivo de respeto y buenos modos que se han de aplicar en clubes, colegios y en cualquier actividad deportiva. Es sin duda el camino adecuado, con paciencia y constancia.

Otros frentes abiertos que tiene el fútbol son la presión fiscal y la seguridad social. En la precariedad e injusticia no se puede, ni se debe recoger nada. Las federaciones tampoco podemos ser ajenas a la realidad y hemos de corregir algunos procesos, modificar prioridades y participar de forma activa en la problemática de tantos clubes modestos que apenas cubren un mínimo de gastos con un gran sacrificio y generosa dedicación.

Nuestro sincero reconocimiento a todos los clubes y directivos que día a día, en silencio, con trabajo y humildad consiguen el milagro de que tantos jóvenes y chavales hagan deporte con escasos medios y mucha ilusión.

Hemos de agradecer tan solo por justicia a los trabajadores de la EFF-FVF y a todos los colaboradores que hicieron un excelente trabajo, con un notable éxito, en los tres encuentros de la Euskal Selektzioa, del pasado diciembre. Y a los que ponen una nueva edición de HAMAIIKA en manos de la gran familia del fútbol.

ESKERRIK ASKO DENOI.





## ZURI-GORRIEN ZALEAK POZIK KOPAREN FINALAREKIN

Maiatzaren 30a zirkulu gorri baten barruan dago sartuta Athletic Cluben zale guztien egutegietan. Larunbat horretan, Ernesto Valverdek entrenatzen duen taldeak, Errege Koparen finala jokatuko du, Bartzelonaren aurka. Beste hitzordu bat historian, Alcoyano, Vigoko Celta, Malaga eta Espanyol kanporatu ondoren. Finalerdietan, berdindu egin zuten San Mamesen (1-1) eta irabazi Cornellán (0-2).

## EUROPAKO ABENTURAK ONDORIOAK IZAN DITU LIGAKO TXAPELKETAN

Lehoiek egin behar lizan duten aparteko ahalegina, maila goreneko aurretiko partida bat eta beste sei partida jokatuta, esan liteke eragina izan dutela etxeko lehiaketan izandako errendimenduan. Valverderen mutilak zalantzati hasi ziren eta hasiera oker hori amaiera arte luzatu dute; gaur egun, helburu nagusia da Lehen Mailan irautea lortzeko estualdirik ez igarotzeko ahalegina egitea.

# TXAPELDUNEN LIGARA BUELTATZEA, ATHLETIC CLUBARI SENDOTASUNA EMATEN DION SARIA

*Athletic Clubak ezin hobeto irabazi zion Nápolesi eta, ondorioz, Txapeldunen Ligan sartu zen, 98/99 urtetik jokatzen ez zuen txapelketan.*

**Adolfo Marcos**

Zuri-gorriek, pasa den denboraldian egindako Liga bikainaren ondorioz, Europako lehiaketa nagusian parte hartu zuten, berriz ere, duela 16 urte bezala. Horretarako, Rafa Benítezen gidaritzapean jokatzen duen Nápoles indartsua garaitu behar izan zuten. Joanean lortutako 1-1eko berdinketak aukera paregabeak ematen zizkion taldeari sailkapenerako. Bigarren zatia hasieran, Hamsiketik gola sartu zuen eta horrek neketsu egin

behar zuen kanporaketa, baina, Aritz Adurizek sartutako bi golei eta Ibai Gómezen tantoari esker, indartu eta Athletic Club prestigio handiko Txapeldunen Ligan sartu zen. Hasiera batean, taldeen zozketaren emaitzak lehoientzat onuraduna izan behar zuela ematen zuen, baina Shaktarrek eta Oportok, lehiaketa hartan, egiteko eta esperientzia handiagoa erakutsi zuten, eta, beraz, Ernesto Valverderen mutilek, azkenean, sari txikiagoa eskuratu zuten, Europa Leaguea jokatzeke aukera eman zion hirugarren plaza, hain zuzen ere.

## EUROPA LEAGUE

Torino izan zen lehen oztopoa eta italiarrek kanporatu egin zituzten (4-5). Oroimenean utzi zuten 2011/12 kanpainako edizio bikaina: bilbotarrak finalean, Europa osoa liluratuta utzi zuen joko ikusgarriarekin.



Athletic, Oportoren aurka San Mamesen jokatutako partida

# REAL SOCIEDAD, TRANTSIZIOKO KANPAINA IRREGULARREAN

*Europa Leagueko taldeen faserako sarbidea ematen zuen azken aurrekoan kanpoan geratu eta Errege Kopan kanporatuak izan ondoren, Ligan estutasun gehiegirik ez izateko ahalegina egin zuten.*

**Adolfo Marcos**



Real Sociedadek, Lehen Mailan mantentzea helburu

**D**enboraldi bikaina egin ondoren -izan ere, donostiarrak Errege Kopako finalerdia bueltatu ziren, bi hamarkada baino gehiago iritsi

gabe, eta zazpigarren postua lortu zuten Ligan, Txapeldunen Liga jokatu zuen kanpaina gogorrean-, urritasun-urteak etorri ziren. Real Sociedad kanporatu egin zuten


Krasnodarren aurka jokatu zue-  
nean, Europa Leagueko azken  
aurrekoan, eta gaizki hasi zen  
etxeko txapelketan eta, ondorioz,  
lehen jardunaldian behera egin  
zuen Ipuruan. Txuri-urdinek  
garaipen bikaina lortu zuten Real  
Madrident aurka, baina hura ez zen  
izan espero zuten inflexio-puntua,  
bi euskarri sendo ziren Claudio  
Bravo eta Antoine Griezmann  
joan izana eta beste estandar-  
tearen, Carlos Velaren, lesioa na-  
barmendu duen taldearentzat. Hori  
guztia dela eta, Jagoba Arrasate  
kargutik kendu zuten hamargarren  
jardunaldian.

## **MOYES, ORDEZKOA**

David Moyes aukeratu zuten  
Gipuzkoako aulkia hartzeko  
ordezkari, baina, egun arte, ez da  
lortu espero zen bultzada. Tekni-  
kari berriari kostatzen ari zaio Li-  
gan norabidea zuzentzea, talde  
“handi”en aurrean lortutako  
emaitzak onak izan badira ere.

# HGB

HOTEL GRAN BILBAO



Bodas Comuniones Bautizos Cumpleaños  
Celebraciones deportivas Empresas

Síguenos y disfruta de extraordinarios descuentos en tu red social



HOTEL GRAN BILBAO Indalecio Prieto, 1 (esquina Miraflores) 48004 Bilbao  
Tel. 94 432 85 75 hotel@hotelgranbilbao.com www.hotelgranbilbao.com

**Sercotel**  
hotels





SD Eibar, denboraldiko ustekabea

## SD EIBARREK HARRIDURA ERAGIN DU LEHEN MAILAN ESTREINATU DEN DENBORALDIAN



### IRUNGO REAL UNIÓN KLUBAK MENDEURRENA OSPATU DU

Irungo Real Unión Klubak, pasa den otsailean, bere historiaren 100 urteak ospatzeko ekitaldiekin hasi zen. Lehenengo ekitaldia gala bat izan zen, Ficoban, eta, bertan, mendeurrenako kamiseta eta ereserkia estreinatu ziren.

*Bigarren B mailan talde armaginean kide ziren jokalariz beteriko plantillarekin, Gaizka Garitanoren mutilak maila bikainean lehiatzen ari dira.*

**Adolfo Marcos**

Eibarrek utzi dio Liga honetan bazterreko izateari eta lehiakideek gehien miresten duten taldea da orain, lehen mailan lehenengoz dagoen denboraldi honetan. Bigarren B mailan talde armaginean kide ziren jokalariek osatuta, Gaizka Garitanoren taldeak erakutsi du txapelketa honetako benetako errebelazioa dela; izan ere, aurkarien maila berean jokatzen ari

da eta gainditzeko oso talde zaila dela erakusten ari da. Egindako lehen txanda bikainaren bitartez, lehen mailan geratzeko duen helburura laster hurbildu da eta sailkapenaren lehenengo erdian amaitzearekin ere amestu du; hori lortzen handia izan da debutean, eta, are gehiago, kontuan hartuta aurrekontu murriztu duela.

Denboraldi historiko honetan, zaharkituta dagoen estadioa zabalitzen ari den honetan, SD Eibarrek, pasa den urtarrilaren 9an, 75. urteurrenaren ospakizuna hasi zuen. Eta, horretarako, 'SD Eibar 1940-2015' izeneko erakusketa historikoa antolatu zuen; bertan, antzinako 250 argazki eta hainbat kirol material -besteak beste, baloiak, kamisetak, botak...- daude ikusgai. "Ikusgai dagoen materialaren % 50etik gora sekula ikusgai egon ez den materiala da", dio Iñaki Arregik, erakusketako arduradunak, azaroan Eibarko taldean hasi zenak 75. urteurrena prestatzeko eta Ipurua Fundazioa martxan jartzeko. Erakusketan, gainera, 75 urteotan lortutako lau garaiak garrantzitsu ere badaude ikusgai. Besteak beste, berriena dena, iaz lortu zutena, Bigarren Mailako txapelketa izan zirenean. Era berean, SD Eibarrek bi liburu argitaratu ditu: batek kirol-historia guztitik egingo du ibilbidea, eta besteak xumea baina zorrik gabea den klubaren kudeaketa ekonomikoaren eredia jasoko du.

Ekintza nagusietako bat Ipuruak hartuko duen lagunarteko partida izango da, aurreikuspenen arabera Europa mailako aurkaria ekar dezakeena. Aurreko efemeridean, 1990ean, 50. urteurrenarekin batera, Amsterdamgo Ajaxek bisitatu zuen Gipuzkoako estadioa. Ospakizun historikoa 2014an hasi zen.

Hitzaldi batzuk egin ziren eta SD Eibarren historiaren hamaiakako onenaren hautaketa. Bitxia bada ere, oraindik ez zen Lehen Mailara igo, eta Alfonso Barasoain entrenatzaile onena aukeratu zuten, Garitanoren aurretik.

## ALAVES PUNTUEN BILA, SUFRIMENDURIK EZ ERAGITEKO ETA DAGOENEAN MANTENTZEKO

*Babazorroak ari dira ahalegina egiten Ligaren amaiera pasa den denboraldia -Alberto Lópezek gidatzen zuen taldea eta ia z salbatzea lortu zuen- baino lasaiagoa izateko.*

**Txemi García**



Alaves, pinaburu bat

**D**eportivo Alaves lanean ari da Bigarren Mailari eusteko. Zilarrezko kategoria proba egin zien zuri-urdinen bihotzei pasa den denboraldian; izan ere, galtzeaz zegoenean

salbatzea lortu zuen, Jaenen jokatutako denboraldiko azken partidari erantsitako denboran. Alberto López, hirugarren teknikaria, aulkian zegoenean izan zen, Natxo González eta Juan Carlos Mandiá kargu-

tik kendu ondoren -azken hori 2014an-. López pasa den denboraldian bigarren teknikari lanetan hasi zen -González eta Mandiarena-, eta klubak konfiantza osoa berarengan jarri zuen; gero konfiantza hori bikoiztu egin zen 14/15erako. Gipuzkoako misterrak behar bezala erantzun zuen eta Alaves txapelketa zorrortz horretan, berdintasun handia dagoen txapelketan, talde lehiakorra izatea lortu zuen. Mendizorroztakoek indarra hartu dute etxean, hiru taldek baino ez baitiote bertan irabazi (Mirandés, Numancia eta Barcelona B), eta zailak dira etxean, hamaika irteeratik zortzitan puntuatuta. Horrela, bada, gasteiztarrek pelotoi konprimitu batean daude, non jaitsierarako lau postuetan egotea saihesten ari den. Taldearen jardute ona Errege Kopan ikusi zen. Lópezen mutilek Osasuna eta Mirandés kanporatu zuten eta hamaseirenean kanporatuak izan ziren Espanyolen aurka.

**AEXA**  
OBRAS Y SERVICIOS. S.L.

**Lavado, planchado  
y repasado  
de ropa deportiva  
Desde 1970**



# BORROKA GOGORRA HIRUGARREN MAILAKO GOIKO ALDEAN ETA, BEHEKO ALDEAN, BESTE HIRU ATZETIK

*Txapelketaren bi herenak gaindituta, euskal taldeek borroka ederra egin zuten promoziorako, titulurako lau hautagairekin.*

## David Novo

Ligaren hasierako titulurako bi ziren hautagai argiak, Arenas eta Portugalete, baina, lehenengo txandaren zati handi batean, Arenasek sailkapenerako zeukan nagusitasuna hain zen handia, askok uste baitzuten Liga gorri-beltzek irabaziko zutela. Orain, Ligaren bi herenak gaindituta, emozioa da nagusi.

La Floridak hamar puntu egin zuen gora, lidergoa lortu arte, eta Zallak eta Gernikak, play off-aren hautagaiek, aurrera egin dute eta oraindik aukera dute txapeldun



Portugalete-Beasain, Floridan

izateko. Beasainek, Cultural de Durangok edo, harrigarri oraintsu igo den Beriok, bestalde, lehenengo lauren artean amaitzeko aukera dute eta, horrela, Bigarren B mailara igotzeko borrokan sartzeko. Behetik, hala ere, hiru dira kanpoan geratu diren taldeak. Oiartzun, Amurrio eta Erandio; 10

## HAUTAKETA URTEA KLUB ASKOTAN

Kategoriako klub askok eman dituzte, dagoeneko, lehenengo urratsak, edo hala egingo dute, laster, presidentetzarako hauteskundeak deitzeko. Hauteskunderen ibilbidea hasteko, ezohiko bilera bat egingo da eta, bertan, bazkideei hauteskunderen egutegiaren eta hautagai orok bete beharreko eskakizunen berri ematen zaie.

Eta horretan ari dira, besteak beste, Balmasedan eta Santutxun Hirugarren mailan, eta Sestaon eta Barakaldon kategoria bat gorago.

garaipen baino ez dituzte lortu guztien artean, eta oso zaila izango da erregionalera ez jaistea, kanpainaren amaieran. Zerrendan atzetik laugarren ez izateko borroka, baldin eta brontzezko mailatik herrestan badatoz, askoz ere zabalagoa da, zazpi talde baitaude tartean.


## Barceló Bilbao Nervión



Un hotel totalmente renovado, con el servicio y saber hacer de siempre.

- Habitaciones increíblemente cómodas y sorprendentes.
- Salones privados para reuniones y charlas técnicas.
- Menús adaptados a las necesidades de los equipos.

## Hotel eco-urbano en el centro de Bilbao



Paseo Campo de Volantín, 11  
T. 944 454 700  
bilbaonervion.ayb@barcelo.com  
barcelobilbaonervion.com

**Barcelo.com**



# EUSKADIK ETA CATALUNYAK DUELA MENDE BATEKO PARTIDA GAUR

*Euskaldunak eta katalanak elkarren arteko lehen talkaren mendeurrena ospatzeko, hiru aurrez aurreko jokatu zituzten: gizezkoen eta emakumezkoen kategorietakoa eta aretokoa.*

**David Novo**

**E**uskal Selekzioak eta Catalunyak aurrez aurrekoa jokatu zuten pasa den abenduan, San Mamesen, euskal konbinatu seniorren Gabonetako



**Etxarri, Gerard eta Amorrortu**

ohiko topaketan. Hala ere, oraingoan, hiru kolorekoaren hitzorduak ofizialtasunaren alde izan

ohi duen aldarrikapen-izaeraz gainera, ekitaldiak baldintza berezia ere bazuen, izan ere, bi selekzioen arteko lehen partida egin zela justu mende bat igaro zen, 1915eko urtarrilaren 3an, Katedral zaharrean, 6.000 ikusleren aurrean. Orduan, etxekoek 6-1 irabazi zuten.

Hori dela eta, bi federazioek, euskaldunak eta katalanak, hain garrantzitsua izan zen data horren mendeurrena ospatu nahi izan zuten, eta, beren talde nagusien arteko aurrez aurrekoaz gainera, beste bi partida ere antolatu zituzten: emakumezkoen kategoriako bat, Barakaldon, eta areto-futboleko beste bat, Santurtzin.

Hiru partida batean asteburu berean, eta kilometro gutxitan; gure lurraldeko zale guztiak gozarazi dituzte partidak eta, beste denboraldi batez ere, gure selekzioen ofizialtasuna aldarrikatzeko balio izan dutenak.

## Goco Tour



- Viajes NACIONALES / INTERNACIONALES
- Todo tipo de servicio en autobús
- Transporte: Escolar, Bodas, Congresos, Celebraciones, Etc.
- Vehículos de: 10, 18, 22, 27, 35, 50, 55, 59, 71 plazas
- Vehículos adaptados para P.M.R.  
(Personas Movilidad Reducida)
- Servicio Privado Taxi: Lujo y 24 horas

### AUTOCARES

B° Arregui  
Polígono Cóndor  
Edificio C  
48340 AMOREBIETA

Tfno.: (0034) 94 630 82 50  
Fax: (0034) 94 630 85 10

E-mail: [gocotour@gocotour.com](mailto:gocotour@gocotour.com)

[www.gocotour.com](http://www.gocotour.com)



# EUSKAL SELEKZIOAREN ETA CATALUNYAREN ARTEKO HIRU AURREZ AURREKOETAN ASISTENTZIAN MARKAK HAUTSI DIRA

*Euskadiko eta Kataluniako areto-futboleko eta emakumezkoen futboleko partidak jai-giro apartaren gosegarri izan ziren. 45.000 ikusle batu ziren San Mamesen.*

David Novo

San Mamesek asistentziarik handiena lortu zuen hiru kolorekoaren historiaren 100 urteetan euskal selekzioaren partida batean. 45.000 ikusle inguruk, horietako % 10 talde bisitariaren zaleek, jai-giro aparta bizi izan zuten Euskal Selekzioaren -Etxarrik eta Amorrortuk zuzenduta- eta Catalunyaen -Gerard López da entrenatzailea- arteko partidaren lortutako berdinketan. Urtero bezala, Euskal Federazioa osatzen duten hiru lurraldeetako futbol xumea bilketaren onuradun izango da ekonomikoki.

Bi taldeetako jokalariek, jokaldiaren hasieran, bi pankarta atera zituzten: batek "One country, one team" zekarren eta, besteak, "Una nació, una selecció". Horrela, bi selekzioen ofizialtasuna aldarrikatu nahi izan zuten, besteak beste, Iñigo Urkullu lehendakaria eta Artur Mas Generalitateko presidentea bertaratu ziren ekitaldian.

Jokoa ondo hasi zen hiru kolorekoarentzat, Adurizek gola sartu baitzuen 3. minutuan, baina, Catalunya baloia zutoinera jaurti zuen, Deulofeuren bidez, Sergio García markagailua orekatu aurretik. Bigarren erdian, senyera-

koek gozatu zuten batez ere baloiaz. Bertoko Torres eta Sergio García kanpotarra izan ziren aukerarik onenen protagonista. Bikandi Garrido izan zen partidako arbitroa.

**EUSKADI:** Iraizoz (Irureta, 64'), Carlos Martínez (Bóveda, 46'), Ansotegi (Etxeita, 46'), Iñigo Martínez (San José, 46'), Balenziaga (Aurtenetxe, 46'), Iturraspe (Bergara, 46'), Beñat (Dani García, 46'), Capa (Susaeta, 46'), Xabi Prieto (Torres, 46'), Ibai Gómez (Yuri, 64') y Aduriz (Arrubarrena, 46').

**CATALUNYA:** Casilla (Masip, 46'), Víctor Sánchez (Montoya, 46'), Bartra (Sergi Roberto, 46'), Piqué (Fontás, 46'), Jordi Alba (Victor Álvarez, 60'), Xavi (Gerard Moreno, 60'), Busquets, Deulofeu (Piti, 46), Sergio García (Samper, 60'), Aleix Vidal (De la Bella, 46') y Jonathan So-



riano (Álvaro Vázquez, 60').

## ■ GOLAK

1-0 min. 3 Aduriz

1-1 min. 44 Sergio García

► **BATEKO BERDINKETA  
EMAKUMEZKOETAN**

## ASTOREK KAMISETA BERRIA AURKEZTU ZUEN EIBARREN, TEKNIKARI ETA JOKALARIEN PRESENTZIAREKIN

Euskadiko Futbol Federakundeak eta Astorekirol-markak, pasaden urrian, Ipuruan, Euskal Selekzioak datozen urteetan jantziko duen kamiseta aurkeztu zuten. Ekitaldira hainbat pertsona ezagun bertaratu ziren:

Luis Marí Elustondo, Euskadiko Futbol Federakundeko presidentea. Rikardo Idiakez, Astorekoa, Mikel Rico (Athletic Club), Eneko Bóveda eta Dani García (Eibar) futbolariak, bai eta euskal emakume jokalariek ere, Eli Ibarra (Athletic Club), Maialen Zelaia (Real Sociedad) eta Laura Prieto (Eibar).





## 11 #EUSKAL SELEKZIOA



Euskaldunek zorte hobea merezi izan zuten, euria nagusi izan zen Lasasarreko topaketan.

**EUSKAL SELEKZIOA:** Jone (Cornejo, 46'), Iraia (Ainhoa Vicente, 75'), Bergara, Irene, Unzue (Ramajo, 71'), Orueña (Baños, 46'), Lizaso, María Díaz (Nekane, 46'), Beristain (Ainhoa Álvarez, 60'), Ibarra y Erika (Yulema, 56').  
**CATALUNYA:** Mariajo (Rafols, 46'), Estella (Cristineta, 65'), Torrejón, Nicart (Paola, 68'), Leila (Mendoza, 46'), Gutí, Carol (Carla, 65'), Corredera (Debora,

46'), Vicky, Alexia (Andrea, 68') y Olga García.

■ **GOLAK**  
0-1 min. 6 Olga y 1-1 min. 19 María

### ► 3-GKO PORROTA ARETO-FUTBOLEAN

Catalunyaren potentziala, estatu mailako elitean jokalaria gehien dituenarena, agerikoa izan zen Santurtzin.

**EUSKAL SELEKZIOA:** Iraitz, Javi, Yerai, Cristian y Pedro -hasierako bosta-. La-

## BILBOKO AREATZAK ZALEENTZAKO GUNE BAT EGOKITU ZUEN

**B**ilboko Areatzak ekitaldian, asteburuan zehar, zaleen gune bat izan zuen, umeentzako jarduerekin, musika-kontzertuekin eta dastatze gastronomikoekin. Zaleen arteko giroa bikaina izan zen; “fun zone” bat izan zen, eta bertatik jarraitu ahal izan zituzten, pantaila erraldoi baten bidez, Euskal Selektzioaren eta Catalunyaaren konbinatuen arteko hiru partidak.

baka, Alex, Iñigo, Montxo, Montxi, Balerdi y Jonathan.

**CATALUNYA:** Didac, Sepe, Adolfo Fernandez, Dani Salgado y Jordi Campoy -hasierako bosta-. Pol, Pacheco, Serrano, Mertel, Albadalejo, Verdejo, Isaac y Corvo.

■ **ARBITROAK**  
Marrodan eta Egia jaunak

■ **GOLAK**  
0-1 min. 12 Pedro (p.p.); 0-2 min. 15 Adolfo; 0-3 min. 20 Serrano; 0-4 min. 28 Serrano; 1-4 min. 31 Yerai; 2-4 min. 32 Yerai; 2-5 min. 33 Dani Salgado; 3-5 min. 34 Labaka y 3-6 min. 37 Sepe



# ASTORE

## NUEVA EQUIPACIÓN EUSKAL SELEKZIOA











**Festa eta errebindikazioa**

# **EUSKAL SELEKZIOA CATALUNYA**





# JON REDONDO: "PAUSOZ PAUSO, HELBURUA GARBI"

*Eusko Jaurlaritzako Kirol zuzendariak, Jon Redondok, artikulu honetan sendo egiten du Euskal Selekzioaren ofizialtasunaren aldeko apustua.*

**Jon Redondo**

**"B**ide luzean, pausoa labur" dio atsotitz batek, eta ederki islatzen du, oso grafikoki bada ere, azken urteotan Euskadiko selekzioaren ofizialtasunaren alde egindako lana. Gizon zein emakume guztion arteko baterako lana izan da, baina batez ere, herrialde eta futbol-potentzia gisa nazioartean dagokion lekua betetzeko duen eskubidea aldarrikatzen den herri batena.

Gure selekzioaren ofizialtasuna ez da gutizia hutsa, ez da urtero-urtero Gabonetako hitzorduarekin berreskuratzen dugun amets beteezina. Oraintsu jokatutako Euskadi-Katalunia partidua dugu adibide, Munduko Txapelketako jokalariek, munduko klub onenetako erreferenteak, bildu zituena, eta itxaropena baino gehiago pizteko moduko maila erakutsi zuen gure taldeak. Hiru talde ditugu Estatuko futbol kategoria gorenean, eta bi, maila bat beherago, euren harrobiko lanarekin gure selekzioa lehen mailako jokalariekin hornitzeko gai direla bermatzen dutenak. Jokalari horiei kanpora joan direnak batzen badizkiegu -punta-puntako taldeetara joan dira gehienak-, futboleko txapelketa handietara joaten diren



Jon Redondo Luis Mari Elustondoren ondoan, Euskal Selekzioa-Catalunyaren aurkezpenean

selekzio askoren pareko maila bermatzen digute Euskal Herriko futbolariak.

Jokalariek eta zaleek osatzen duten binomioak bidean topa genezakeen edozein oztopo gainditzeko besteko indarra ematen dio proiektuari, eta alderdikeria edo probintziakerietatik harago dagoen sendotasuna bermatzen du. Babes horrek urrats irmoak behar ditu, handiak, eta erakundeak urrats horiek egiteko prest gaude, herritarren nahiekin bat eginda. Beste helburu bat ere badugu bide horretan, asmo handikoa baina betetzeko modukoa, Euskadiko selekzioaren partiduak FIFA egunetara eramatekoa, alegia, gure futbola-

riak nazioarteko txapelketa handietara joaten diren selekzioekin neurtu daitezen. Aukera ezin hobea dugu herrialde gisa agertzeko, kanpoan kirolean ere munduan bere lekua aldarrikatzen duen eta behin baino gehiagotan mundu mailako selekzio onenen artean egon daitekeela erakutsi duen herri gisa.

Beraz, egin dezagun baterako aldarrikapena, ilusionagarria baino gehiago den helburu horretara iristeko urrats erraldoi hori egiteko. Nork ez du amets egin gure estadioetan Alemaniako edo Ingalaterrako selekzioa ikustearekin, edota gure taldearekin txapelketa handi.

# ANGEL MARIA VILLARREK BIZKAIKO FEDERAZIOAREN 100 URTEAK ITXI DITU

*EFEFeko presidentea Bizkaiko Federazioaren 100 urteak ospatzeko liburuaren eta aldizkariaren aurkezpenean buru izan zen -beste ekitaldi batzuk ere antolatu dira-.*

**David Novo**

**A**ngel María Villar, Espainiako Futbol Errege Federazioaren presidentea Bilbora joan zen, pasa den otsailaren 17an, Bizkaiko Federazioaren ehungarren urteurrena ospatzeko liburu eta aldizkaria aurkeztera; Iñaki Gómez Mardones presidente duen erakundeak argitalpen horien bidez, amaitutzat jotzen ditu urteurrena ospatzeko ekitaldiak. Ekitaldia Ibaiganen izan zen eta gure futboleko hainbat pertsona ospetsu bertaratu ziren, esaterako, Euskal Federazioaren presidentea, Luis María Elustondo, karguan aurretik egon zena



Luis María Elustondo, Ángel María Villar eta Iñaki Gómez Mardones

eta gaur egun EFEFeko areto futboleko batzordeko kide dena, Laurentzi Gana, edo Athleticeko jokari historikoak, besteak beste, José Ángel Iribar edo Koldo Agirre.

Villarrek, gainera, Bilbora egindako bisita aprobetxatu zuen, azken hirurtekoan 100 urte bete dituzten Bizkaiko sei klubi oroitzapenezko plaka bat emateko.

 **Sport·designer**


 grupo-campus

**OFERTA LANZAMIENTO  
19,50 €**

Diseño de ejercicios de entrenamiento, simulaciones de situaciones de juego en movimiento, creación de jugadas de estrategia, formatos de convocatorias, books de ejercicios y estrategia, acceso a contenidos y formatos on-line, etc...

Disponible en euskera y castellano.

Más información: [www.sport-designer.com](http://www.sport-designer.com)





## ARBITROEN EUSKAL BATZORDEA LANEAN, LEHEN MAILAN 2 EPAILE IZATEKO

*Bikandi Garrido nazioarteko egitea, beste talde bat Lehen Mailara igo dadila lortzea, 2013an presentzia indartzea eta gazte talentudunekin lan egitea; horiek helburu.*

**Jon Aguirre**

2013/2014 denboraldiko balantzea gogobetegarria izan da Arbitroen Euskal Batzordearentzat; izan ere, Iñaki Bikandi Garridok lortu du, 28

urterekin baino ez, Lehen Mailara igotzea, eta, gaur egun, eliteko arbitrorik gazteena da.

Jarrilleroak, laguntzailearekin batera, Core gazte epaileentzako ikastaroan saririk nagusia eskuratu zuen, UEFAk Nyonen antolatuta, eta bere hurrengo helburua nazioartekotzea lortzea izango da. Era berean, De Burgos Bengoetxea eta Sagues Oscoz Bigarren Mailako gazte epaileek oso denboraldi duina osatu zuten, eta horrek kirol-arloan arrakasta iragarri diezaguke, denbora laburrean.

Gure erakundea, “Talentos y Mentores” programan finkatutako Arbitroen Batzorde Teknikoaren jarraibideei jarraiki, arbitro gazteen prestakuntzan ari da lanean, euskal arbitrajearen etorkizuna bermatu ahal izateko.

Hala erakusten dute Hirugarren Mailara igo izana, pasa den udan, 10 epaile berri, ia guztiak 25 urtetik beherakoak. Horretarako, hamar aditu epaile ohik esku hartu behar dute, gazteenen ikaskuntzarako esperientzia ekartzeko.

Azken batean, epe laburrera ditugun helburuak honako hauek dira: gure arbitroen nazioartekotzea lortzea elitean, beste igoera bat lortzea Lehen Mailara, 2B mailan daukagun presentzia indartzea arbitro gazte eta etorkizunekoekin, talentu berrien prestakuntzan lan egitea eta federazio, klub eta beste estamentu batzuei laguntzea, gure arrakastak zuonak baitira.

## KEPA ALLICAK JON ANDER GAMBOA ORDEZKATU DU IDAZKARITZA NAGUSIAN

*Pasa den urritik, Euskal Futbol Federazioak beste idazkari nagusi bat du. Kepa Allicak, 21 urteren ondoren, Jon Ander Gamboa ordezkatu du.*

**Fran Rodríguez**

21 urte eman ditu Jon Ander Gamboak Euskal Futbol Federazioko idazkari nagusiaren lanetan. 1993an euskal kirol erakundea martxan jarri zenetik, Gamboa presente egon da. Futbolari eskaini dio bizitza guz-

tia, eta are gehiago kontuan hartzen badugu Euskal Federaziora heldu aurretik beste bederlatzi eman zituela Bizkaikoan. Eta federazio horretatik heldu da bere ordezkoa. Kepa Allica, 35 urteko bermeotar gaztea, Zuzenbideko lizentziatua eta Kirol Kudeaketako MBA eta Kirol Zuzenbideko masterra. Zazpi urteko esperientzia du postu berean, Bizkaian, eta, hori dela eta, azkarrago egokitu da postu berri horretara. “Ilusio eta motibazio handia dut. Nire zeregina da sarrerak handitzea, bai eta federazio honen presentzia gizartearen ere, egiten den lana ezagutzera emanez. Klubei eta gainerako estamentuei



**Kepa Allica**

eskatu nahi diet gehiago inplika daitezten. Ez da ahaztu behar federazioak klubaren elkarrekin direla eta erabakiak beharrezko arabera eta hobetzeko asmoarekin hartu behar direla” dio Allicak.

# Ibéricos deluxé

Delicatessen

ESPECIALISTAS  
EN CORTE DE JAMÓN EN EVENTOS  
(BODAS, COMUNIONES...)



Tienda situada en  
San Sebastián (Donostia)  
Calle NARRIKA nº 31 Parte Vieja  
Telf.: 943 423 849

[www.ibericosdeluxe.com](http://www.ibericosdeluxe.com)



# AYESTARÁN

**DONOSTIÁN**

31 DE AGOSTO, 16  
Tf.: 943 429 390

NARRICA, 16  
Tf.: 943 422 681

SAN JERONIMO, 17  
Tf.: 943 420 919



**JOYERÍA AYESTARÁN  
CON EL DEPORTE  
EUSKALDUN**



# EUSKADIKO 18 URTEZ AZPIKOAK ETA 16 URTEZ AZPIKOAK JOKO ONA, BAINA ESTATU MAILAKO FINALETIK KANPO

*Gure futbolariak La Palma del Condadon (Huelva) jokaturako lehenengo fasean egin zuten estropezu eta lau puntu lortu zituzten bigarren partidatan, Bargasen (Toledo), baina ez ziren nahikoa izan.*

**Txemi García**

**E**uskadiko 18 urtez azpikoak eta 16 urtez azpikoak selekzio autonomikoaren estatu-mailakoan pasa den denboraldian egindakoa hobetzea dute helburu.

Kalitatea, konpromisoa eta ilusioa izan ziren Toledora eta Huelvara egindako espedizioetan nagusi, baina bietan geratu ziren lehia-

ketatik kanpo, partidaren bigarren fasean.

Kanporaketa mingarria, gurek egindako lanaren eta pertzepzio onen ondoren. Hala nabarmentzen dute bi selekzioetako hautatzaileek. José Álvarez, 18 urtez azpikoaren entrenatzaileak zera dio: “Pozik nago egin duten jokoarekin eta bizi izan dugun giro apartarekin. Horrelako txapelketetan puntu asko lortu behar dira, aukerak edukitzeko”. Álvarezek gako gisa Andaluziaren aurkako lehenengo fasearen debuta (0-4) argudiatzen du.

Gero, taldeak ondo erreakzionatu zuen (4-0) Kanarietako taldearen aurrean, baina horrek behartzen zituen bigarren fasean biak irabaztera.

Eta misterrak zera dio, horren gainean: “Gaztela-Mantxaren aur-

kako partida oso orekatua izan zen eta 1-1eko berdinketarekin amaitu genuen. Selekzio bikaina da. Hala ere, garaipena merezi genuen. Eta Valentziaren aurrean oso ondo jokatu genuen. Bigarren zatian futbol-maila bikaina erakutsi genuen. Nahikariren eta Paularen golei esker, markagailuak zor zaiona eman zion egoerari.

Amaierako faserako txartela eduki gabe maletak egin izanak min handia egin zien Sergio Riveraren neskei, garaipenik lortu ez baitzuten. Andaluzen eta kanariarren aurkako bi berdinketek (1-1) estu eta larri utzi zuten 16 urtez azpikoa.

Erantzukizuna, beharbada, oso handia izan zen Euskadirentzat, eta Riverak zera esan zuen: “Kostatu egin zitzaigun bi partidetan. Traba handiko partidak izan ziren. Baina bigarren zatietan oso ondo aritu ginen. Mantxatarren aurreko berdinketak, nahiz eta kontrako 0-1 berdindu, sailkatzeko itxaropenekin amaitu zuten.

Baina Euskadik bere jarrera erakutsi zuen eta valentziarrak irabazi zituen (1-0). Eta dio teknikariak: “Gola izan dugula faltan uste dut. Pozik nago taldearen errendimendurekin, baina ez dugu asmatu atean sartzen”.

## ATHLETICENTZAKO ETA REALARENTZAKO URTE ZAILA LEHEN MAILAN

**I**bilbidea oso gogorra lizaten ari da eta hori emaitzetan ikusten da, pasa den denboraldiko emaitzekin erkatuta. Athletic txapel-dunordea izan zen Ligan eta orain postu beragatik borrokan ari da. Realaren kasuan, errealitateak erabateko bira eman du, negatiboa. Orain, zazpigarrenak izan ondoren, bertan mantentzeko lanean ari dira. Bigarren Mailan, zuri-gorriak eta Oiartzun Ligako titulua eskuratzeko borrokatuko dira. Bestek ematen du salbatu egingo direla.



Euskadi, 18 urtez azpikoa



Euskadi, 16 urtez azpikoa





Euskal selekzioa, gazteak



Euskal selekzioa, kadeteak

## EUSKADIKO 18 URTEZ AZPIKO ETA 16 URTEZ AZPIKO SELEKZIOAK AMAIERAKO FASEAN, PUNTU GUZTIAK LORTU ONDOREN

*Ederto jardun dute euskal taldeek estatuko txapelketako lehenengo bi faseetan. Euskadi jokatutako zortzi partidetan nagusitu zen.*

**Raúl A. Collantes**

**E**uskadi 18 urtez azpikoa eta 16 urtez azpikoa oso ongi sailkatu ziren selekzio autonomikoen estatuko txapelketaren azken faserako.

Gazteen selekzioak, Jonathan Ledesmanen gidaritzapean, eta kadetearenak, José Luis Txakartegi entrenatzaile dela, puntu guztiak lortu zituzten beren konpromisoetan. Lehenengo aldia da bi konbinatu horiek txapelketaren azken tartera igarotzen direla.

Lehenengo faseko partidak Leioako Sarriena zelaian jokatu ziren, pasa den abenduaren 27aren eta 29aren artean.

Euskadik Nafarroaren eta Gaztela eta Leonen aurka jokatu zuen, bi kategorietan, eta emaitza bikainak lortu zituen, bai sailkapenari dagokionez, bai jokoan eraku-

### FUTBOLA ETA ZINEMA



“Los Rebeldes del Fútbol”, Gilles Pérezek eta Gilles

Rofek zuzendutako filma. Baloiaren bidez heroi sozial bilakatu ziren bost futbolariaren historia kontatzen du. Futbolariak Sócrates, Rachid Mekhloufi, Carlos Caszley, Didier Drogba eta Predrag Pasic dira (2013an Athletic Club Fundazioak antolatutako I. Thinking Football Film Festivaleko irabazlea).

tsitako errendimenduari dagokionez.

18 urtez azpiko taldeak 4-2 irabazi zien nafarrei eta 2-0 Gaztela eta Leongoei. 16 urtez azpiko taldeak nafarrak garaitu zituen, 1-0, eta Gaztela-Mantxaren aurka nagusien markagailua errepikatu zuen, 2-0ekin. Guztira, sei puntu euskal selekzio bakoitzerako, bigarren faserako.

Errioxako Logroño hirian jokatu ziren partida horiek, otsailaren 20tik 22ra bitartean. Aurrerariak, Errioxa eta Galizia, garaituak izan ziren Euskadiren aurka jokatu zutenean. Gazteen taldeak 4-1 irabazi zien errioxarrei eta 3-2 galiziarrei. Kadeteek 4-0 irabazi zioten Errioxari eta 1-0 Galiziako erkidegoari.

#### **ESPAINAKO TXAPELKETAKO FINAL-AURREKOETAKO AURKARIAK**

18 urtez azpikoak etxean ariko den Balear Irlen kontra neurtuko ditu indarrak apirilaren 24tik 26ra jokatuko den lauko finalean. 16 urtez azpikoek, berriz, Andaluzian jokatuko dute azken fasea. Euskadik Asturias izango du aurrerari (maiatzaren 22tik 24ra).



# HIRU EUSKAL KONBINATUETAKO BATEK ERE EZ DU LORTU ESTATUKO TXAPELKETAREN FINALEAN SARTZEA

## ERRELEBOA

**T**eknikarien estrainaldia: Joseba Hule (gazteak), Koldo Aranaga (kadeteak) eta David Cano (emakumezkoak).

*Ez zen aukerarik egon. Hiru euskal taldeak kanpoan geratu ziren amaierako fasean, konpromiso batean ere ez baitzuten irabazi.*

### Iker García

**E**uskal selekzio batek ere ez zuen lortu urtarrilean jokatu ziren estatuko txapelketen lehenengo fasean irabaztea.

Kadeteek baino ez zuten lortu puntu bat gehitzea autonomia-erkidegoen arteko txapelketan hiru euskal konbinatuek jokatu zituzten sei partiden puntuei.

Txapelketan parte hartu zuen lehenengo selekzioa emakumezkoen 21 urtez azpikoa izan zen, David Canoren zuzendaritzapean; Kataluniara joan zen jokatzera eta bi partidak galdu zituen. Errioxaren aurka 5-0 galdu zuen eta Kataluniaren aurka, 4-0.

Gazteen selekzioak hartu zuen txanda, eta Ceutan jokatu zuen. Andaluziaren aurkako lehenengo partidari, hiru koloreko konbinatuek 7-1 galdu zuen. Bigarren partidari, Euskadi Ceutako selekzioaren aurka jokatu zuen eta Joseba Hulek zuzentzen duen taldeak 5-0 galdu zuen.

Azkenik, kadeteen selekzioak txapelketan Extremaduraren aurkako partidaren berdinketarekin hasi zuen ibilbidea. Koldo Aranagaren taldeak 4ko berdinketa lortu zuen Extremadurako selekzioarekin, baina, Galiziaren aurka, 11-0 galdu zuen.



Gazteak



Kadeteak



Emakumezkoak



# El placer de desplazarse

VEHÍCULOS CON CONDUCTOR



Automóviles de alta gama

Autobuses  
y microbuses



**vallina**  
BUS AUTO

Idiomas  
Servicio 24 horas

Tel.: 943 39 38 48  
Donostia-San Sebastián  
[www.vallinagrupo.com](http://www.vallinagrupo.com)



# IÑAKI SENA: "16 URTEZ AZPIKO ETA 18 URTEZ AZPIKOEN SELEKZIOEKIN TITULUREN BAT LORTZEKO ESPERANTZA DUGU"

*Taldeko lana, ahalegina eta dedikazioa dira Iñaki Senaren hiru oinarriak, Euskadiko Futbol Federakundearen oinarriko futbola zuzentzeko.*

**Carlos Zárate**

Iñaki Sena Euskadiko Futbol Federakundearen oinarriko futbol guztia koordinatzeko arduraduna da, gizonezkoen eta emakumezkoen futboleko kirol zuzendaria den aldetik. Karguan bigarren denboraldia da, eta Senak itsatsita du telefonoa belarrira. Hainbat xehetasun koordinatu behar ditu eta hala behar du izan.

"Zaila da, selekzioen entrenamenduak, bidaiak, egiturak, beste selekzio batzuen aurkako partidak... koordinatu behar ditudalako", dio. Bere lanari dagokio deiak egitea eta ekitaldiak koordinatzea, bai eta egiturak zehaztea ere. Bere lanaren alderdirik nagusia hautatzaileak dira. "Nire lana da Zuzendaritza Batzordeari hautatzaileak proposatzea" dio.



Iñaki Sena

Horretarako, Senak hainbat irizpideri jarraiki jarduten du. "Zein kategoriaren hautatzaile izango diren jakin behar dute, talderen batean sartu direlako edo jarraitu

egin dutelako. Gainera, emakumezkoen futbolaren kasuan, emakumezkoen talde bat entrenatu izana exijituko diegu", dio. Hala ere, hautatzaileak aukeratzeko orduan, "une horretan entrenatzen ari ez diren entrenatzaileetan oinarritzen da eta kategoria jakin bat ezagutzen dutenak", dio.

Iragazkia igarota, Senak bilera batzuk egiten ditu eta, horietan, bere metodologia azaltzen du. "Lehenengo bileran, entrenamenduen mekanika azaltzen dugu; kopurua zehazten zaie eta datak zehazten dira, partiden arabera", dio.

Kudeatzen duen beste kontu bat klubekiko harremanak dira. Entrenamenduak egin ahal izateko, instalazioak eduki behar dira, eta hori oso zaila da, Euskadin futbol-zelaiak zein beteta dauden kontuan hartuta. "Instalazioak oso beretik daude eta mesedeak eskatzen jardun behar dugu, eta klubek, sarritan, ahalegina egin behar dute beren entrenamenduetako espazioa uzteko". Hori horrela, Senak harrobiko klubik "puntakoenen, besteak beste, Athletic Cluben, Real Sociedaden, Alavesen eta Aurrera de Vitoriaren" aurkako prestatze-topaketak ere antolatzen ditu.

Gizonezkoen 16 urtez azpiko eta 18 urtez azpiko selekzioetan du arrakasta-itxaropenik gehien. "Beste selekzio batzuek baino gutxiago entrenatzen dugulako handicap daukagu, baina konfiantza dugu aurten tituluren bat lortu ahalko dugula", dio Senak, estatu-mailan Espainiako Futbol Federazioarekin harreman bikaina dituenak. "Hautatzaileekin harremanetan gaude etengabe", dio amaitzeko.

**20 ANIVERSARIO**  
**CANTERA DEPORTIVA**  
1995-2015  
**20 AÑOS CON EL FÚTBOL BASE**  
[www.canteradeporativa.net](http://www.canteradeporativa.net)

**Martes y viernes en tu kiosko**

Crónicas  
Previas  
Reportajes  
Plantillas  
 Sanciones  
Horarios



MIEMBROS DE:

**BIZKAIA**  
EUSKADIKO FUTBOL FEDERAZIOA

Fundación Athletic Club Fundación  
1909-2019





## EKFB-K LAGUNTZA HANDIA EMAN DIO EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEARI

*Euskal Kirol Federazioen Batasunak (EKFB) azken hilabeteotan Euskadiko Futbol Federakundearekin lotura handia duela egiaztatu du.*

### Lankidetzaz

**L**euskal Kirol Federazioen Batasunak (EKFB) urtean jarduera sendoa du eta, bertan, harreman garrantzitsua du Euskadiko Futbol Federakundearekin. Rubén Buenok, kirol-erakunde honetako gerenteak, zera dio: "Eusko Jaurlaritzak euskal selekzioak sustatzeko diru-laguntzen ildoak berreskuratu ditu eta EKFBren bidez bideratu dira, besteak beste Euskadiko Futbol Federakundearekin

dauden lankidetzaz eta laguntzak sustatzeko. Gure erakunde lanean ari da euskal konbinatuen presentzia nazioarteko ekitaldi ofizialetan eta ez ofizialetan benetakoa izateko".

Futbolarekin, iaz, emakumezkoen selekzio absoluturako laguntzak egon ziren; Irlanda irabazi zuen, 2-0, Azpeitian. Euskal Kirol Federazioen Batasunak (EKFB) photocalla jarri zuen Azpeitiko Garmendipeko zelaian, eta lagunarteko partidaz gozatzeraz joan ziren pertsona ugari igaro ziren bertatik; bertan, Euskadik nagusitasuna erakutsi zuen une oro Irlandaren aurrean.

EKFBk abenduko lagunartekoan ere lagundu zuen, Lasasarren, Catalunyaaren aurka; bateko berdinketa izan zen. Laguntza gizonezkoen selekzio absolutura ere zabaldu zen, San Mamesen Catalunyaaren aurka jokatu zuenean.

Ekitaldi horiek Bilboko Areatzan jarritako "fan zone"ko giroa berotu

zuten. Espazio horretan EKFBk bere lekua izan zuen, eta topagune izan zen bi konbinatuen zaleentzat; Bilboko alkateak, Ibon Aresok, inauguratu zuen. Txosnak jarri ziren, bai eta Katedralean jokatzeko ari ziren bi selekzioekin lotutako produktuak erosteko postuak ere (EKFBk stand bat izan zuen, topaketaren oroimenezko kamisetekin) eta eszenatokiak, zenbait kontzerturekin. Antolatutako ekitaldietan, besteak beste, puzgarriak eta haurren tailerrak egon ziren, eta emakumezkoen taldeek Barakaldon jokatutako partida eta gizonezkoen selekzioetakoak pantaila erraldoi batean eman zituzten zuzenean. EKFBk Azpeitiko photocall arrakastatsua jarri zuen berriz ere, San Mameseko estadio berrian, eta ehunka pertsona igaro ziren bertatik, argazkiak egitera eta, horrela, euskal selekzioaren ofizialtasuna aldarrikatzera.

Euskal kirolak jarraitzen du ofizialtasunaren alde lan egiten eta, dagoeneko, badaude nazioarteko bidean aukerak aztertzen ari diren zenbait euskal federazio. "Eusko Jaurlaritzaren estrategia honen atzetik EKFB dago euskarri gisa, etorkizuna hurbilean emaitzak eman ditzakeen lana bideratzeko, besteak beste, sokatiraren kasuan bezala", dio Rubén Buenok. Futboleko jarraitzen dugu urratsak ematen.



# Kutxabank.

## Hipoteketan

### 1.a

Euskadin liderrak gara hipoteketan. Etxe bat erostekotan bazabiltza, galdetu geuri eta gehien komeni zaizun hipoteka emango dizugu. Eta gainera, erosteko tramite guztiekin lagunduko dizugu.



Adibidea: 28 urteko bezeroa; 100.000 euroko mailegua; 30 urteko epea (tasazioaren zenbatekoaren gaineko %75a). Kuota finkoa, amortizazio-sistema frantsesa. Euriborraren balioa (BOE: 2014ko azaroa): %0,335. (\*) Eskaintza honetarako hurrengo baldintzak bete behar dira: hilero 3.000 eurotik gorako nomina sartzea; dendetan Kutxabank txartelekkin egindako kontsumoa urteko 4.800 eurotik gorakoa izatea; Baskepensiones BGAErako edo Kutxabank Pentsio Planerako ekarpena urteko 2.000 eurotik gorakoa izatea; etxebizitza-asegurua kontratatzea eta urtero mantentzea (horretan edukitzailearen kapitala 61.287 eurokoa da eta edukiaren kapitala 24.514,80 eurokoa);

maileguaren hasierako nominalaren pareko gutxieneko kapitala duen bizi-asegurua kontratatzea eta urtero mantentzea. Adibide honetan UTB Aldakorra kalkulatzeko legeriaren arabera hasieran sortutako gastuak 1.676,56 euro dira, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan lehenengo eskualdaketan ohiko etxebizitza erosteko denean. Irekitze-komisioa: %0,25 eta gutxienekoa 400 €. Etxebizitza-asegurua baldintzak: 61.287 €ko edukitzailearen kapitalarekin eta 24.514,80 €ko edukiaren kapitalarekin 225,53 euroko prima. Bizi Asegurua: 100.000 €ko zenbatekoarekin, urteko prima 155,30 eurokoa. Tasazioa: 258,94 €. Erregistroko ordainsaria: 364,54 €. Gestoria: 272,25 €. Euskal Autonomia Erkidegoko zergak: 0 €, kontratua

sinatzean bezeroak ordaindu beharrekoak. Etxebizitza Asegurua Kutxabank Aseguradora SAU sozietatearekin eta Bizi Asegurua Kutxabank Vida y Pensiones SAU sozietatearekin kontratatu behar dira. Horietan Kutxabank SA Banka-Aseguruetako operadorea bitartekaria da. Kutxabank SAK mailegua onartu behar du. Eskatutako baldintzak bete ezean, etxebizitzarako derrigorrezko aseguruia izan ezik, Euriborraren gaineko diferentzialak %1ean handituko dira UTB Aldakorra (%2,84). UTB Aldakor hau erreferentzia indizeak aldatu gabe egonez gero kalkulatu da; beraz, UTB Aldakorra interes-tasak berrikusi ahala aldatuko da. Urtean behin berrikusiko da.